

Parentesiak eta pareen tesiak

Aitor Salegi Martija

Julene Azpeitia
38. ipuin lehiaketa
2025 Zumaia

zumaia
Udala



ZUMAIA
BIZITZEKO
DA



Parentesiak eta pareen tesiak

Aitor Salegi Martija

Julene Azpeitia 38. ipuin lehiaketa

2025

Zumaiako onenaren saria

2025eko azaroan digitalizatutako ipuina.

© Aitor Salegi Martija (ipuinaarena)

© Zumaiako Udala (argitalpen honena)

Bitza erabakiak omen dira. Bidegurutzeak. Datorrenaren ilusioa eta nostalgia, beraz. Nostalgia, izan zitekeenaren ilusioa izan daitekeenarena baino handiagoa denean. Damua, alegia. Eta askotan, jakina denez, ez bat eta ez beste, denen nahasketa baino: ilusioa, nostalgia, damua.

Jertse urdindun gizonak, ezeren damurik ez, dakiela behintzat. Edo ez luke esango, gutxienez, damututa bizi denik. Egindako guztiaz ez dago harro, noski, harrokeria ere balitzateke hori. Damuaren ordeztu, erabakiak azkarregi hartu izanaren "arantza", esango luke: bikotekidea, hipoteka, ezkontza, haurrak, harremanaren haustura, haserreak... Izan ere, eufemismoak maite dituen horietakoa da Jertse urdinduna.

Damuaren ordeztu, arantza. Baina inoiz, eguneroko lanak gain hartzen dionetan, kasu —haurrak eskolara eramane, lanera joane, haurrak eskolatik jaso, lanetik itzuli, haurrak parkera gerturatu, hitzordua edukita ez dela bertaratu aurpegiatzen ari zaione dentistaren deia erantzun bitartean haurra erori eta negar betean ari dela zer egin asmatu—, eufemismoek zentzua galtzen dute, eta ekaitzaldiaren ostean damutzerara iritsi izan den hitzak etortzen zaizkio gogora. Alegia, damutzekotan, halakoetan datozkion substantiboez dela damu, horra Jertse urdindunaren gurrpil zoroa.

Batez ere, bidea desegin eta bidegurutzeetan erabakiz aldatzeko aukerarik izango balu, lagunengandik gertuago egotea ahalbidetuko liokeen bidezidorra hartzea nahiko luke. Elkarrengandik inoiz urrunduko ez zirela hitzemandako lagunak ex-lagun, edo onenera ezagun izatera igaro zaizkio. Nola hurbildu orain haiengana arrotz sentitu gabe? Nola ezikusiarrena egin haien "Bizi-al-haiz? Ez-diguk-kaso-haundik-in-aspaldiyan" aurpegiei?

Horregatik dago hain urduri goizean goizetik. Horregatik aritu da ispiluaren aurrean hitz solteak entseatzen, agurrik naturalena ispiluari atera nahi balio bezala. Horregatik aldatu du jertsez ere —haurrei arraroa gertatu zaiena, azken hilabeteetan bi jertse urdinak txandakatuz bizi izan denez gero—, zeinak izena aldatzera behartuko gaituen aurrerantzean.

Kasaka urdindun etiketak protagonistaz nahastea ekar diezagukenez: *Casiodun gizona*. Aurrez aipatutako arrazoiak medio, nerbioak ezkutatu nahian hurbildu da KABI tabernara Casiodun gizona. Urteak daramatza santelmoetan ere atera gabe, eta arraroa iruditu zaio erdigunetik apartexeago dagoen tabernan geratu izana. Beiratetik begiratzean, ordea, ulertu du egoera, "Ez erre" eta "Txakurrik ez " oharrei, "45 urtetik gora" gehitu beharko litzaieke.

Barran aurkitu ditu, atergabe hizketan, herriko jaietako lehen eguneko freskotasunarekin. "Honbre! Zemouz haiz?", "Hemen onena", "Arratsalde on!"...

Josurengana gerturatu denean, ondoko taburetean jarri eta pozten dela animatu izanaz aitortu dio besteek ez entzuteko moduan, xuxurlatu ia: "Pozte nauk animatu izanaz!". "Baita ni're". Ondorioz, ez da espero bezain dramatikoa izan lehen kontaktua, hala pentsatu du, eta hasperen egin.

Zer nahi duten galdetu eta bost kaña eskatu dizkio zerbitzariari. "Telmo ta Julenentzat e eskau, genero bila jun dituk eta!". "Hemen dituk..."

—Bizi al haiz? —Julenek, taberna guztiak entzuteko moduan.

—Ez diguk kaso haundik in aspaldiyan, kar kar kar —hori da Telmo.

—Bestela zeinek atea ber zizkizuen zuei kañak? Egariyak hilko zinaten!
—deserosotasuna disimulatu eta hitz beste egiteko balio izan dio ateraldiak.

Kezkak kezka, deserosotasunak deserosotasun, kanpotik begira legokeen norbaitentzat, zerbitzariarentzat, esaterako, ez lirudike aspaldian elkarren berririk izan ez duten kuadrilla sakabanatua. Finean, duela 25 urte baino kilo gehiago dituzte, bai, baita zimur gehiago ere, eta betaurrekoak, inozentzia gutxiago ere bai, noski, baina beren rola berberak dira, kodeak ere bai; pentsa, hitz egiteko modua ere ez zaie aldatu.

Kañak kañari jarraitu dio, lehenik; ondoren, Jagermeisterrak kañari, eta baita zigarroren batek ere, tabernako iluntasuna baliatuz. Errespetatzen ez den ohar bakarra izango da tabakoarena, antza.

Tabernatik irten direnerako iluntzen hasia da. Bi pauso aurrera, bat ezkerrera, bat aurrera, bat eskuinera, bat atzera... sorbaldatik helduta aurkitzen dute alkoholak eta gainontzekoek ebatsitako oreka, eta baita hitzekin debekatua duten txera adierazteko modua ere.

Bertsio Gaua dela adierazi dute. Telmoren hitzetan, ordea, talderik "earrenak" azkenengoak direla kontuan izanda, nahikoa izango dute ordu biak aldera agertzea. Ordura arte, beraz, afaria aipatzea debekatuta, tabernaz taberna arituko dira: METRO, INPER, TXIKIXA, TAOSA, NIKOL, METRO, NIKOL, METRO, METRO...

Tabernak lekuz kanpo daudela adierazten dien kasuan (NIKOLen, esaterako, ez dute adinkiderik aurkitzen, ezta barraren bestaldean ere), gustuko kanta eskatzeari ekiten diote; gazteagoek, eta errutinak, eta adinak, eta bizimodu aldaketak tabernatik aldenduarazi arte beraien territoria zela aldarrikatzeko modua dena, "Ikasi berkoie ba zer dan musika ona". Eta, zerbitzariak "zein taldena da hori?" galdetuz gero, begiradak gurutzatzen dituzte, elkarri arrazoia emanaz: "Ikusten, hauek ze jakingoie?"

METROn, betidanik ezagutzen duten neska kuadrilla batekin egin dute topo. "Iepa!", "Hola!", "Zemouz?", "Epa!"... Lehenik distantziara, eta, eskuko basoak hustu eta abestiak ozenago abestu ahala, elkarrengana gerturatzen ari dira. Izatez, ez dira adinkideak, baina harremana zuzena da, izan ere, bikote bat baino gehiago irten dira elkartze honetatik iraganean, baita erlazio puntualagoak ere. Beraz, badu arriskutik egoerak, enkontruak ilusioari bide eman diezaiokeelako, ilusioak nostalgiari, nostalgiak damuari. Gauak luzeak baitira oso. Galdetu amesgaiztoen beldur den haurrari bestela, edo espetxean lehen gaua igaro behar duen presoari, edo ospitalean bisitarik jasotzen ez duen eritari. Eta, gauak luze badira, zer esanik ez juergan igarotzen direnak, amaiezinak zenbait, betierekoak besteak.

Casiodun gizonak Zira horiduna jo du begiz, zeina mutil batekin hizketan ari den taldetik metro batera. Gainontzekoen elkarriketan murgildu da, eta,

tarteka, disimuluz betiere —7 Jagermaister eta 8 kaña edan ostean mantendu daitekeen disimuluarekin—, Zira horidunari begiratu dio.

Hara, instant bateko kontua izan da, gau amaiezin honetako milisegundo bat, bien begiradek topo egin dute, eta lotsatik ere baduen irribarrea ezpaineratu zaie. Jarraian, batak zein besteak barran libre dagoen txokora jo dute, eta ohartzerako, edo kontzienteki eginiko hautua izan da beharbada, elkarren ondoan gertatu dira. Alkoholaren albo-onurak. "Hepa!", "Hola". "Danok animau zeate gaur", "Bai, dudan eonaiz, baina azkenian konbentzitu et nere burua". "Pozte naiz". "Lana, umiak, gurasuak...deskonektatzeko berra nekan". "Zer nahi dezue?", "Bost kaña". "Baita nik'e", "Beste bost?", "Ez, beai esan diot", "Zuk ze, orduan?", "Ez, lasai, gero eskaukoet. Deskonektatu nahi nula nik'e, alegiya". "Bihar lanaz gain resakare izangoa baina...". "Zer nahi?", "Ez, eskau diyou beste kamareruai". "Bihar biharkuak!". "Eeee!", "Ez al dezue ba eskau?", "Nik ez. Atea Jagermaister bat". "Baita neretzakore".

Ez baitute lagunak tabernan jarraitzen dutela ziurtatzeko aitzakian begiratu aldendu eta zuzeneko kontaktua ekiditen dagoeneko, lasaiago dirudite orain, erosoago, lehen oztopoa gaindituta, izotza urtuta. Biek ala biek ongi ikasiak dituzte igogailuan, edo ile-apaindegian, edo eskola sarreran gainontzeko gurasoei egin beharreko kortesiazko galderak, eta baita erantzunak ere. Behin pausoa emanda, ordea, aurrera egitea besterik ez zaie geratzen, Zira horidunak "Zemouz zaude?" galdetzean, elkarizketa intimoagoa izan daitekeen eremu batera igaro baita. Eta, elkar ezagutzeko izan dituzten zailtasunak ikusita, ez dakite zenbateraino hitz egin zintzoki, zenbateraino eman bide beren miseriei, zenbateraino hustu; izan ere, ez da erraza iraganaren aurrean biluztea, baina eguraldiaz edo juergaz hitz egiteko ere ez daukate modurik, ezagunegiak dira horretarako.

—Zemouz zaude? —Zira horidunak, aurpegi serioz.

—Nekauta baina ondo. Uste baino hobeto nabil lagunakin. Aspaldi erten gabe, baina lehen bezelaxe segitzeue.

—Zuk ez. Kosta zait ezautzia kasaka urdina jantzita ta Jagermaisterra eskuan dezula, dantzan.

—Horreatik kostako zitzaizun. Ni're lehen-lehen bezela nabilelako. Ta zu zemouz?

—Bakizu, lana, umiak... Baina juerga erten ta ezin jardungo gea euneroko kezka buruz hitzeiten, ezta? —gizonak arrazoia eman dio buruarekin.

Poltsatxoa atera eta tabakoa prestatzeko ahaleginak ezustean harrapatu du Casioduna. Esperientziak ahalbidetutako dotoreziaz bete du erritua: esku batekin papera atera, bestearekin xehetutako tabakoa eskuratu eta paperaren erdi-erdian kokatu; iragazkia ezpaineekin ahoaren ertz batean atxikitzen duen bitartean papera miazkatu, eta, amaitzeko, hatzen artean duela ahora gerturatu eta iragazkia erantsi, zeina ezpain gorrietan mantentzen duen azken unera arte. Horra, askatasunaren suziria. Harrigarria eta, ondorioz, erakargarria iruditu zaio Casiodunari. "Nahi bat?", keinu bidezko galdera izan da. Erretzaile ez denak onartu egin du erretzaile ohiaren eskaintza. Dagoeneko barratik aldenduak daude, iluntasunean, eta Zira horidunak metxeroa Casiodunaren aurpegira gerturatu duenean, oraindaino oharkabean joandako zenbait zimur atzeman uste ditu. Ondoren, berea pizteko txanda, irudipen berbera izan du Casiodunak.

Zira horiduna galdetzeraz ausartu denetik —Zemouz zaude?— denbora igaro da, *La Pollaren* zortzi abesti izango dira dagoeneko, tabakoen sua ere segundo batzuen buruan itzaliko da. Horregatik, une honetantxe, burua biratu dute, baina ez dituzte lagunak topatu. Ez dute elkarrekin jarraitzea beste erremediorik izango. "Beste batera?", "Bai, guazen!".

Tabernatik irteten diren bakoitzean elkarrengandik gertuago dirudite. Hasieran, metro bateko tarteak mantendu dute, segurtasun distantziaren neurria hori izango da, antza. Bi, hiru tragoren buruan, tarteak erdiraino murriztua dirudi. Azken tabernatik irten berri, berriz, besotik helduta doaz aterkiaren aitzakian. Casiodunak euria ari duela ikusita irteeran hartu duen aterkiak ez du babes handirik eskaintzen, eta hor doaz itsatsita ia, aterki gorriaren gerizan. Hurrengo taberna zein izango den elkarri galdetu beharrik gabe, poteoko ohiko zirkuituari jarraika, elkar ezagutu berri duten hainbat gazte gurutzatzen dituzte. Beraz, aterki gorri bixi bat ikus daiteke ibaian gora, aterki beltzen korrontearen aurka.

Karpa. Jendez gainezka dagoenez gero, kosta zaie kontzertuaz gozatzeko gunee egokia aukeratzea, eta are gehiago kosta zaie adostutako gunera iristea. "Barkau" eta "Sentitzet" artean ireki dute harainoko bidea, eta Casiodunari aterki gorria erortzean, ez du hura hartzera makurtzeko modurik izan.

Barrara gerturatzean, kañez gain txupitorik ez duen nahi galdetu dio barrakoak Zira horidunari: "Etxian kontura ez al dezu nerekin txupito bat hartuko? Zuk esan zerrena, danetik dao hemen". Ez zuen halako proposamenik espero, zer esanik ez 20 urte inguruko neska gazte batengandik, eta haren ausardiak, haren indiferentziak, eta egia esatera haren edertasunak, liluratu egin du.

Anartean, kostata bereganatutako espazioa zaintzen gelditu den Casiodun gizonak ez du kontzertuan kontzentratzerik lortzen. Casio higuatuari begira daramatza azken minutuak, kañarik gabe geldituko den kezka areagotuz doakio. "Bukatzea guaz, azkenengo kantak geatze zaixkigu. Honen izena: *Ez dago ilusio faltsurik*". Zalantza guztiak uxatu dizkio abeslariaren sententziak, nekez esan daiteke argiago. Buelta eman eta irteerarantz doa, 04:20, bada etxeratzeko garaia.

Karpatik irteteko azken metroen faltan, Zira horidunarekin egin du topo aurrez aurre. Kaña bat darama esku bakoitzean, eta desenkusatzeko, besapean daraman aterki gorria erakutsi dio, barkamen eske isila.

Zerbezak hotza behar duela esan izan duen horietakoa da. Oraingoan, hala ere, maite duen musika eta Zira horiduna lagun, ezin gusturago ari da plastikozko edalontziari zurrupaka. Begiradak gurutzatzen dituzte, baita hitz solteren batzuk ere, baina ez dute gehiagorako aukerarik, izan ere, bozgorailuen bibrazioek, ingurukoaren ahots urratuek, sirena hotsek ez dute uzten maitatzen, ez agurtzen, ez negarrik egiten, ezta hitz egiten ere.

Azken abestia izango dela jakinarazi dutenean, elkarri begiratu diote, zorionaren iragankortasunaz ohartu izango balira bezala. Ezpaineratu duten tabakoa nola, ahitzear da gaua, ahitzear da itzaldutzat jotzen zuten zigarroaren sua ere, eta bihar goizean, seguruenera, ez dira kondarrak baino geratuko, tabakoaren kondarrak eta buruko min jasanezina.

Aitormena. Elkarri sorbaldatak heldu eta erlojuaren penduluaren antzera hasi da entzulea alde batera eta bestera, mantso, baita orain arte lehen lerroan elkarri bultzaka airean ibili direnak ere. Pauso bakoitzean eskuan daramaten edalontzitik irteten diren zipriztinak iristen zaizkie aurpegira, baina nori axola dio horrek orain, festetako lehen egunean ez gaude, bada?

Ez dira betiko garai onenak, entzulearen ahotsak bat egin du abeslariarenarekin, azken finean gizaki hutsak gara, gure protagonistek orain arte baino serioago dirudite, bakoitza bere pentsamenduetan murgilduta, edo abestiak duen solemnitateari erantzun nahian, denborak aurrera etengabiaaaaaan, Zira horidunari metxeroarekin identifikatutako zimurak datozkio burura, baita Casiodunari ere, ta orain ezin eutsi izan giñana, elkarri zeharka begiratzen baino ez dira ausartzen, lehen tabernan Ziradunaren galderak —zemouz zaude?— eraitsitako horma altxatu balitz bezala, rutinaren morroiak bihurtu gara, irribarre egiten saiatu dira, irribarre behartua nolanahi, tristuratik gehiago duena, laztana lehen baino lehen aska gaitezana, orain bai, orain beste guztien moduan ekin diote abesteari, geratzen zaien aire apurra baliatzeko prest, bai, zin dagizut ez dizudala inoiz gezurrik esan eta, sorbaldatak estuago heldu diote elkarri, zaude ziur ezin izango zaitudala ahaztu inoiz, beso bana ondokoaren sorbaldatak jaitsi eta bien erritmoek bat egin berri dute, hautsitako katearen erdian dauden bi katebegi dira, aitortzen dut izan zarela ene bizitzaren onena; baina orain, maitia lehen baino lehen aska gaitezana.

Laster egingo dio ilargiak eguzkiari leku. Dagoeneko ez dute zerbezarik onartzen beren gorputzek; aitzitik, ez Zira horidunak ez Casiodunak ez dute etxeratzeko gogorik eta, ordu gutxiren buruan izango duten biharamunari on egingo diola pizza zati batek otu zaie. Gainera, MARINAKo kolan zain daudela, Itzurungo hondartzan musika dagoela entzun berri diote gazte bati, eta ez zaie ideia txarra iruditu, gauari amaiera emateko, edo egunari hasiera, nondik begiratzen den, pizza zati eta kafe banarekin hara gerturatzea.

Itsasoa aurrean, gau luze bat atzean, eta esku artean bilduta kafe bana, eztarria berotu gisan eskuetako hotza ere eramangarriago egin dezakeelakoan. Abailduta dirudite biek. “Lehen’e nahiko denboa

badamakiu alkarri bizkarra emanda", erantzun dio Zira horidunak Casiodunak txantxetan, gorputza zutik mantentzeko dituzten zailtasunak ikusita, bizkarra bizkarraren kontra deskantsatu dezaketela esan duenean. Eguna argitzen ari duen honetan, elkarrengandik urrunago dirudite, gau osoan zehar baino urduriago, hotzago.

Herriko jaiak izan daitezkeen parentesia ixtera doa, hala iradokitzen du zeru urdintzen hasiak, eta aurrerantzean zer? Nekezagoa da dena egunerokoan. Oraindik musikaren erritmoan dantzan ikusten dituzten gazteek izango dute parentesia luzatzeko modua, beste bi egun dituzte aurretik oraindik, eta "repetiziyuak", baina horiei ere iritsiko zaie astelehena, eta orain pozarren abesten ari diren abesti berbera iratzargailuan entzutean, ez dute orain nabari zaien lilurarik, emoziorik sentituko, bestelako sentipenak baizik.

Aurrez aipatu dizuet, *Aitormena* abestuz kanporatu dute biriketan geratzen zitzairen aire gutxia, edo zeresana agortu zaie akaso, eta horregatik jardungo dira kafeari begira, itsaso ilun hartatik hitzen batzuk erreskatatu nahian. Nolanahi den, beraien arteko isiltasunak ozenagoa dirudi egun-argitan, eta isiltasun horretan eroso daudela iruditu zaionean, burutazio hori izan duenean, alegia, etxeratzeko ordua dela ulertu du Zira horidunak.

Casiodun gizonak, oster, isiltasun horrek gordetzen duen esanahia argitzeko modurik ez du izan. Horregatik, Zira horidunak etxera doala esan dionean, "Ni pixkatian hemen geauko naiz" erantzun dio, esan gabe utzi dituzten hitzen zentzua topatu dezakeelakoan. Zenbat ote dute ilusiotik, zenbat nostalgiatik, zenbat damutik?

Casiodun gizonak etxeko atea ahalik isilen ireki eta aterki-ontziarekin estropezu egitean ohartu da aterki gorria hondartzan ahaztu dutela. Zapatilak balkoian utzi eta oinutsik logelara hurbildu da. Mugikorraren linternarekin argi egitean, bere etsipenerako, ohea hutsik dagoela ikusi du. Onartzera ausartuko ez den desilusia. Goragalea. Alabaina, arropak ohe ondoko aulkian uzten hasi denean... hara: zerbeza orbanez jositako zira horia!

Desilusia arindu dio egin berri duen aurkikuntzak. Eta, mezu horren zentzua argitzeko energiarik geratzen ez zaionez, begirada aulkitik aldendu gabe hartuko du loak. Esnatzen denean birentzat gosaria prestatuko duela pentsatzeak eragindako pozarekin.